

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIAKO UDALA

Gaikuntza nazionalako funtzionarioentzat gordetako lanpostua betetzea

Nik, Lucio Castañeda Martínez de Treviño Guardiako (Araba) Udaleko alkate-lehendakariak, ebazpen hau eman dut urriaren 7an:

ALKATETZAREN EBAZPENA

Uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Guardiako Udaleko lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordeta dago, idazkaritza-kontuhartzailatza azpieskalako funtzionarioentzat, eta eragotzi gabe hargatik irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankor 2 c) eta d) puntuetan xedatutakoa.

Nola eta lanpostu hori hutsik geratuko den laster, titularrak erretiroa hartuko baitu 2020ko urriaren 23an.

Kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.h) artikuluan eta 92. bis artikuluan xedatutakoa.

Honen bidez, hau ebatzi dut:

Lehenengoa. Hamabost egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiak eskaerak egiteko; xedea da Guardiako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailatza plaza behin-behineko izaeraz betetzea. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduaren arabera egin behar dira.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiak lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaille lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleituta, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena. Ebazpen honen berri ematea udalbatzari, egiten den lehen osoko bilkuran.

Guardia, 2020ko urriaren 13a

Alkate-lehendakaria

LUCIO CASTAÑEDA MARTÍNEZ DE TREVIÑO

ERANSKINA

" jaunak/andreak (NANa:; jakinarazpenetarako helbidea:; udalerrria:; telefonoa:), estatu mailako gaikuntza duen funtzionarioak, azpieskalakoak, eta egun toki erakundean lanpostua betetzen duenak, hau

Adierazten du

Jakin du Guardiako Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik geratuko dela las-ter, titularra erretiratu egingo delako 2020ko urriaren 23an, eta lanpostu hori behin-behineko betetzeko aukera dagoela, Gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gor-detako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Betetzen ditudala, nire ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion iza-pideak betez,

Eskatzen du

Guardiako Udaleko idazkari kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

NANaren fotokopia.

Gaikuntza nazionaleko funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

....., 2020koaren(a).

lzenpea"